

BALIO PROPOSAMENA

Alde batetik, kotxe honen bitartez azkarrago garraiatzeko aukera izango du erabiltzaileak. Gainera, trafikoa dagoen kasuetan, hegan eginez kotxe errenkada guztia aurreratzeko gai izango da, eta nahi duenean leku batetik bestera bidaiatzeko ahalmena izango du.

Jada ezagutzen ditugu hegazkinak, helikopteroak, deportiboak, kotxe elektrikoak, automatikoak... Baina honelako proiekturik ez da inoiz aurrera atera. Guk eksklusiboa den kotxe bat eskaintzen dugu non lehen aipatutako garraioen ezaugarri positiboenak batuz garraio-elementu hoberena sortu dugu. Honakoa erabiltzen dutenen estatus maila sozio-ekonomikoa indartu egingo da. Horrez gain, gaur egun garrantzia handia ematen diogu gure ingurumenari, eta kotxe hau erabiltzeak honen zaintza ahalbidetzen du; izan ere bateriarekin funtzionatuko du.

Lehenbizi, kotxe honek balio kuantitatiboa izango du. Merkatuan ez dago horrelako kotxerik, hau da, ez dugu konpetentziarik. Hori abantaila gisa hartuko dugu eta gure produktua prezio altuan salduko dugu; hau da, gizarte segmentu batzuentzat soilik izango da eskuragarria. Bestalde, produktu berria denez, balio kualitatiboa ere hartuko du. Ez da inoiz ikusi hegalki duen deportiborik eta hori ere kontuan hartu behar da.

Beste lehiakideengandik hainbat faktoreek bereizten gaituzte. Lehen esan bezala, merkatura aterako dugun kotxe hegalaria merkaturako produktu berri bat izango da, inoiz ikusi ez den diseinu berri batekin. Honek kotxe deportibo baten itsura izango du eta botoi bati emanez helikoptero baten helizeak aterako zaizkio zapaletik (ondoan dituen kotxeak babesteko helburuarekin, hau da, hauek kolpatzeko arriskurik ez izateko) eta gora igoko da aldeko hegalki atera aurretik.